



[Egaztea-home](#)

## TEKNOLOGIA



Dirudunentzako Internet bidezko telebista sortu dute

(2006/06/14)

Marbellan aurkeztu duten ekimenaren bidez bezeroei "4 milioi euroen klubean" salgai dauden ondasunak erakutsi nahi dizkiete, hau da, prezio horretatik gorako balioa duten ondasunak.

24 milioi euroko luxuzko etxe baten barnealdea ikusteko, munduko autorik garestienak ezagutzeko edo pertsona dirudunenak nola dibertitzen diren jakiteko aukera emango du, besteak beste, aberatsentzako egindako Internet bidezko lehen telebistak.

Marbellan aurkeztu duten [www.theresabernabe.tv](http://www.theresabernabe.tv) kateak sortzailearen izena du, Theresa Bernabe, hain zuzen; higiezin munduan aditua da berau, Puerto Banusen bizi da eta luxuzko hiru mila jabetzatik gora ditu salgai. "Internet bidezko lehen telebista da Europan eta Asian eta programazioa aberatsei bideratuta duen bakarra munduan", esan du Bernabek.

Telebista horretan agertzen diren luxuzko etxeak Costa del Solen daude, dena den, aurrerago, kate horretan Costa Azuleko, Karibeko, Dubaiko, Algarbeko edo New Yorkeko jabetzak barneratuko dituzte, Bernaberen esanetan.

"Orain arte diru asko dutenentzako soilik zen mundu eksklusiboa" ezagutaraztea da ekimen honen helburua. Bestalde, telebista sortzeko beste ideia bat izan zuten, "4 milioi euroko kluba" deritzon salgai dauden jabetzen berri ematea balizko bezeroei, hain zuzen. Klubak izen hori du eskaintzen diren etxeek prezio horretatik gorakoak direlako.



Bezero gehienak ingelesak dira eta ondoren daude arabiarrak eta espainiarrak, agertu du kateko zuzendariak.

Bernaberen esanetan, erosteko ahalmen handia dutenei zuzenduta dago programazioa baina azpimarratu du balitekeela bestelako jendeak ere milioi askotako kontuak dituztenei mugatutako munduan barneratu nahi izatea".

Etxeak saltzeaz gain, beste sail batzuk ere baditu kateak eta horietan motorraren mundua, ostalaritza, aisialdia, kirola, edertasuna edo artea dira eskaintza nagusiak, besteak beste.